

**Deialdia, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko hamaika administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak. Horietarik hamar Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira –bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin–, eta bat Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoa.
(137. NAO, 2023ko ekainaren 30ekoa)**

OPOSIZIOALDIKO BIGARREN PROBA EGITEKO JARRAIBIDEAK ETA INFORMAZIOA

Deialdiko 7. oinarriak proba hori egiteko moduari buruzko informazioa jasotzen du, bai eta probaren balorazioa egiteko irizpideei buruzkoa ere.

Proba, oinarri horretan adierazten denez, epaimahaiak proposaturiko testu bat transkribatzean datza, izangaiak ordenagailu-teklaturan zer-nolako lastertasuna eta eraginkortasuna daukan baloratzeko.

Talde bakoitza zer ordutan deitua izan den, epaimahaiak izangaiei dei egingen die eta inprimaki bana emanen die, izangaiak bere nortasuna kreditatu ondoren. Inprimaki horretan oposiziogile bakoitzari esleitu zaizkion kodea eta pasahitza agertuko dira.

Proba, mekanografiakoa, izangaia balioztatuko duen programa informatiko batekin egingen da. Izangaiei 3 minutuko tarte emanen zaie ordenagailu-teklatura egokitzeko, eta, ondoren, deialdian adierazitako 10 minutuko tarte edukiko dute proba egiteko.

Jarraibide argi eta zehatzak emanen zaizkie, aplikazioko formularioak betetzeko.

Ondotik heldu diren jarraibideak garrantzi handikoak dira proba egiteko:


- Testua paragrafoz paragrafo transkribatu beharko da; izan ere, ariketa honetan, ordenagailu-teklaturako eraginkortasunak EZ du esan nahi izangaiak lerro batetik bestera jauzi egin behar duenik transkribatu beharreko testuaren formatuari bere horretan jarraitzeko, baizik eta transkribatu beharreko testuko karaktereak zuzen eta fidelki teklatu behar dituela.
- Izangaiak oso-osorik kopiatu beharko du paragrafo bat, "Intro/Enter" tekla sakatu aurretik. PARAGRAFOZ ALDATZEKO, BEHIN BAKARRIK SAKATUKO DA "Intro/Enter" tekla.
- Behin betiko testuko pultsazioak zenbatuko dira, eta ez da zigortuko karaktereak ezabatzeko teklak erabili izana (ezabatu edo atzera egin).
- Transkribatu beharreko testua inprimatuta emanen zaie izangaiei, eta ez da onartuko atrilik edo teklaturako nahiz pantailarako bestelako osagairik erabiltzea.
- Izangaiei aulkiaren altuera egokitzeko osagairen bat (kuxina edo bestelako jasogailu bat) erabiltzen utziko zaie, aulkiaren altuera egokitzeko.

Testuaren transkripzioa bukatzen dutenean, ordenagailuan idatzi duten testuaren kopia emanen zaie izangaiei.

OPOSIZIOKO BIGARREN PROBA EGITEKO ERABILI BEHARREKO APLIKAZIOAREN "PANTAILA-ARGAZKIEN" SIMULAZIOA

Mekanografiako proba ordenagailu pertsonal batean egingen da, proba behar bezala egite aldera izangaia zenbait pantailatara eramanen duen aplikazio baten bidez hain zuzen ere.


1.- Izangaia ebaluazio-prozesuan sartu ahal izan dadin, identifikatu egin beharko da sisteman sartzeko formularioan, ariketa egiten den ikasgelan emanen zaizkion "erabiltzaile-izena" eta "pasahitza" erabilita.



The screenshot shows the login interface for the Navarre Government system. On the left is the logo of the Navarre Government (Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra). On the right, under the heading "Acceso al sistema", there are two input fields: "Login:" and "Password:". Below these fields is a grey button labeled "ACEPTAR".

Izangaia bere "erabiltzaile-izena" eta "pasahitza" sartuko ditu, eta "ONARTU/ACEPTAR" botoia sakatuko du.

2.- Behin identifikazioa balioztatuta, honako jarraibide hauek dauzkan beste formulario bat irekiko da:



The screenshot shows a personal information verification screen. At the top left is the Navarre Government logo. The main heading is "Por favor, verifique su información personal antes de continuar". Below this, there are four input fields: "Nombre:" (Patxi), "NIF:" (00000000T), "Apellidos:" (Pérez Pérez), and "Convocatoria:" (Auxiliar Administrativo 2019). Below the fields is a section titled "ATENCIÓN" with the following text: "En la próxima pantalla usted dispondrá de un tiempo para habituarse al teclado, con un texto no puntuable. Si usted se adelanta a las instrucciones que se le están transmitiendo y comienza el tiempo asignado para ello, perderá tiempo no recuperable. Si desea continuar la prueba deberá hacer click con el ratón en la casilla 'He leído y comprendido las instrucciones', y a continuación sobre el botón 'CONTINUAR'. Si hace click en el botón 'ABANDONAR', no la podrá realizar: automáticamente quedará excluido, ya que la aplicación no le permitirá continuar." At the bottom, there is a checkbox labeled "He leído y comprendido las instrucciones" which is currently unchecked. Below the checkbox are two buttons: "ABANDONAR" and "CONTINUAR".

Egiaztatu zure datuak ongi daudela. Akatsik ikusten baduzu, altxatu eskua eta gorabehera jasota geratuko da.

Hala adierazten zaienean, izangaiek saguarekin klik egingen dute "Jarraibideak irakurri eta ulertu ditut/He leído y comprendido las instrucciones" laukian eta, ondoren, "JARRAITU/CONTINUAR" botoia sakatuko dute; hartara, prozesuan aitzina egiteko borondatea erakutsiko dute. Hautatutako laukian klik egitean, "JARRAITU/CONTINUAR" botoia aktibatuko da, ondotik heldu den pantailan ikusi ahal izanen denez:

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Por favor, verifique su información personal antes de continuar

Nombre: Patxi NIF: 00000000T
Apellidos: Pérez Pérez Convocatoria: Auxiliar Administrativo 2019

ATENCIÓN

En la próxima pantalla usted dispondrá de un tiempo para habituarse al teclado, con un texto no puntuable. Si usted se adelanta a las instrucciones que se le están transmitiendo y comienza el tiempo asignado para ello, perderá tiempo no recuperable.

Si desea continuar la prueba deberá hacer click con el ratón en la casilla "He leído y comprendido las instrucciones", y a continuación sobre el botón "CONTINUAR".

Si hace click en el botón "ABANDONAR", no la podrá realizar: automáticamente quedará excluido, ya que la aplicación no le permitirá continuar.


He leído y comprendido las instrucciones

ABANDONAR CONTINUAR


Adi: "UTZ/ABANDONARI" botoia sakatzen baduzu, aplikazioak ulertuko du ariketa utzi nahi duzula, eta ez dizu aitzina egiten utziko.

"JARRAITU/CONTINUAR" botoia sakatzeko esaten zaizunean, aplikazioak ereduako formulario bat eskainiko dizu teklatura ongi dabilela egiaztatzeko; horretarako, aurretik ariketako ez den beste testu bat emanen zaizu kontrol-orrian, eta tarte bat utziko zaizu teklatura egokitzeko.

Honako pantaila hau agertuko zaizu:



Ezarritako denbora agortzen denean, aplikazioak automatikoki erakutsiko du amaiera-mezu hau:



Eta "JARRAITU/CONTINUAR" botoia sakatzean, probako kodea sartzeko formularioa agertuko da:

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

A continuación dará comienzo la prueba. Por favor abra su documentación e introduzca el código de prueba que le ha sido asignado y pulse Aceptar.

Tiene 5 intentos.

CANCELAR ACEPTAR

Formulario honek oposizioko proba hau egiteko esleitutako kodea sartzen utziko du.

Ariketako testua emanen zaie izangaiei –ezin izanen dute zabaldu–. Azalean, tekleatu beharreko testuari esleitutako kodea ageriko da.

Hala adierazten zaienean, izangaiek ariketaren kodea sartu beharko dute, eta saguarekin "ONARTU/ACEPTAR" sakatu.

Adi: "BERTAN BEHERA UTZ/CANCELARI" botoia sakatzen baduzu, aplikazioak ulertuko du ariketa utzi nahi duzula, eta ez dizu aitzina egiten utziko.

Ariketaren kodea sartzeko agintzen zaizunean, epaimahaiak kalifikatuko duen mekanografia-probarako formularioa agertuko da. Deialdiak ezarritakoarekin bat, hamar minutu edukiko dituzu proba egiteko. Denbora-tarte hori atzerantz azalduko da pantailan, proba amaitzeko zenbat denbora geratzen den jakiteko une oro. Bitarte horretan, emandako testua transkribatu beharko duzu, eta ondotik heldu den pantaila hau ikusiko duzu:

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

PRUEBA MECANOGRÁFICA Patxi Pérez Pérez
NIF 00000000T Tiempo restante: 00:30

CONTINUAR

Pantaila honetako lehenbiziko tekla sakatzen den unean berean hasiko da zenbatzen izangai bakoitzak transkripzioa egiteko edukiko duen hamar minutuko tartea. Tekla hori sakatzen 5 segundo atzeratuz gero, aplikazioa automatikoki hasiko da hamar minutuak deskontatzen.

Proba bukatzen denean, ondotik heldu den amaiera-mezu hau agertuko da:



"JARRAITU/CONTINUAR" botoia sakatu beharko duzu mekanografiako ariketa osorik egiteko eta azken pantaila ager dadin:



Eta "ONARTU/ACEPTAR" botoia sakatu beharko duzu aplikazioak hasierako pantailara – sisteman sartzeko formulariora– eraman zaitzan.

Amaieran, eserita itxoin beharko duzu une batez, harik eta prozesua amaitu dela adierazten zaizun arte, mekanografiako ariketa eman diezazuten.